



Izenburua: **Erle langileen amodioak**

Egilea: **Aleksandra Kollontai**

Itzultzailea: **Aroa Uharte**

Bilduma: Literatura Unibertsala, 178

ISBN: 978-84-9109-503-3

Salneurria: 19,00 €

Hasiko naiz esaten niretzako lan handia izan dela liburu hau itzultzea: belarri bat errusieran (eta horrekin lotutako doinu, adierazpide, irakurgai, jende, bizipen, zapore, historia...) eta bestea nire hizkuntzaren musikan izaki, oreka bilatzen aritu beharra. Doinu arrotz bat euskal irakurleen belarrira gozoa izan dadin saiatzea. Itzulpena hori baldin bada beti, literaturak horrekin jostatzeko eta gozatzeko aukera ematen du.

## **ESKERRAK**

Beraz, eskerrak eman nahi dizkiet itzulpen-lehiaketa hau posible egiten duzuen guziei, itzulpen hau mimoz eta patxadaz egiteko eman didan aukeragatik. Hasierako onarpen bat ere ematen duelako norbere lana aukeratua izateak, eta horrek lasaitasun pixka bat, bultzada bat, itzultzen segitzeko.

Eskerrak ere bai euskarara itzuli eta euskaraz idazteko eskura dauzkagun hizkuntza-baliabide guztiak egiten inurri-lanean diharduen jende horri guztiari. Itzul

Lehenbiziko literatura-itzulpena da nik bakarrik egin dudana, eta poz handia ematen dit liburua esku artean izateak. Poza, itzulpenak eman didalako aukera nire barreneko puska errusiar horrekin bizitzeko. Poza, eman didalako aukera adin, garai eta egoera ezberdinetako emakume errusiarren gorputzetan bizitzeko, itzuli bitartean. Hori ematen du literatur fikzioak, ezta? Ate zabal bat da mundu zoragarrietan murgiltzeko; eta itzulpena da fikziozko mundu zoragarri horien barrenean benetan sentitzeko modu bat, zeren hor zaude erabat, bart trabatutako esaldi horren parkeko bankuan eserita esnatzen zara goizez. Poza, baita ere, eman didalako aukera Aleksandra Kollontai bertatik ezagutzeko.

## **ALEKSANDRA KOLLONTAI**

Figura izugarri interesantea da Aleksandra Kollontairena, bai pertsonaia historiko gisa, eta bai emakumeen askapenaren borrokaren protagonista gisa. Bere bizitza zirrargarria da, eta baita ere bere lana (horregatik atera zait itzulpenaren hitzaurrea hain luzea). Kollontai lan ikaragarria egin zuen bere bizitzan zehar hainbat arlotan.

Eta, aldiz, hiru alderditan baztertua izan zen: politikoki (ildo ofizialetik aldentzeagatik erbestealdi diplomatikora bidali zuten), feminista zen aldetik (kamaradek etengabe jarri zuten zalantzan haren lana) eta literatura-eremuan (errusiar literaturaren sisteman ez ziren aintzat hartuak izan Kollontairen narrazio hauek eta idatzi eta argitaratutako beste batzuk, nahiz asko zabaldu ziren irakurleen artean, esan bezala). Gainera, eraso pertsonalak, moralak, sexualitateari lotutakoak-eta, erabili zituzten etengabe haren lan politiko zein literarioa kritikatzeko. Hainbeste borroka eta lorpenen ondoren, Kollontairen lan diplomatikoa bakarrik gogoratu zuten urte luzez (orain, Errusian, pixkanaka errekuperatzen ari dira Kollontairen figura, baita bere lan literarioak ere).

Testuinguru hurbilagoan, marxismoaren barreneko ikuspegi feministaren teoriko bezala da ezaguna batez ere. Normalean, makroegiturarekin (baldintza ekonomiko eta sozialekin) lotutako alderdiei buruz Kollontaik esan eta idatzitakoak ekartzen dira gogora; ongi legoke literatura-lanak ere irakurtzea, beste alderdi batzuk landu baitzituen, eta ez garrantzia gutxiagokoak: amodio-harremanak, amatasuna, emakumearen autonomia, eta abar. Eta, Kollontai osotasunean hartuz gero, argi gelditzen dena da ez zuela emakumearen askapena dekretu bidez etorriko zenik espero, baizik eta benetako aldaketak ematen baziren emakumearen psikologian, emozioetan, amodioarekin zuten harremanean...

## **LANA**

Hizlari bikaina izan zela esaten da, eta haren saiakerek ere zabalpen handia izan zuten. Literaturan, aldiz, kanonetik kanpo gelditu zen, baina bere literatura-lanak asko zabaldu ziren 1920ko hamarkadan (paralelismoa Txernixevski eta *Zer egin?* Nobelarekin 1963). Kollontaik iraultzaren B aldea kontatzen du. Kontatzen ditu bizitza intimoaren iraultzak (minuskulaz) Iraultza handiaren garaian. Hortaz, XIX. mendeko gerra batzuk ulertzeko Tolstoiren nobeletara jotzen dugun gisa berean, XX. mendeko Iraultza ulertzeko jo dezakegu Kollontairen kontakizunetara. Alde horretatik, jarraitzen dio gehiago XIX. mendeko literaturaren tradizio errealistari XX. mendeak sinbolismoarekin, futurismoarekin etab. ekarritako aldaketei baino.

Dena den, errusiar literaturak kasik gizarte-eragile gisa historikoki izan duen eta duen paper hori Kollontairen lanetan ere ikusten da: literatura da tresna bat, kasu honetan, emakume langile alfabetatzen hasi berriengana ailegatzeko.

## **ERLE LANGILEEN AMODIOAK**

Horregatik narrazio hauen estilo sinplea, hizkera ez hanpatua. Kollontairen beste idatzi batzuetan, adibidez eskutizetan, ageri den estilo landu adierazkor hori gutxi nabaritzen da narrazio hauetan: kontakizuna soilduta dago. Batzuetan eskematikoa ere bada kontatzeko manera. Eta badu beste ezaugarri bat Kollontaik buruan zuen hartzailearengana hurbilduko zuena: ahozkotasuna. Errusiar literaturak, oro har, badu ahozkotasunaren karga handi bat. Narrazio hauetan, «Vasilisa Malygina» narrazioan oso nabarmen, hori markatzen da aditz-denboren etengabeko jauziekin. Ni saiatu naiz euskarara ekartzen (beste itzulpen batzuetan egiten ez den bezala) orainaldia erabiliz ahozko kontaketa erabiltzen dugun gisan. Espero dut euskal irakurlearengana hurbiltzeko modu bat izatea.

Literatura tresna bat dela esan dugu, baina liburu honetan ez dago diskurtsorik, pertsonaien eta ekintzen bitartez adierazten dira ideiak, eta, batez ere, planteatzen dira galderak. Pertsonaiak konplexuak dira: beren bizitza eta garapen propioa dute, ez dira karikatura itxiak. Horrela, planteatzen diren tesiak eta aurrerabegirakoak ere irekiak dira: hiru narrazioetan badago halako zalantzaz beteriko begirada bat etorriko denari; zalantzaz beterikoa baina berezko baikortasun fuerte batek baldintzatua aldi berean, behetik gora mundua aldatu nahi izan zutenek nahitaez izan behar zuten borondate iraultzaile baikor horrek ziprztindua.

Nire ustez, testuinguru bati lotutako narrazioak dira. Denbora bati lotutakoak. Atzera begira askotan, abiada bizian doan orainean zehar, kontaketa arin batekin, eta beti aurretik etorriko denaren atezuan («Amodioa hiru belaunalditan» narrazio motzean XIX. mendearen erdiraino egiten da atzera, eta Urriko Iraultza ondorengoak dira azkeneko kontuak).

Azken finean dira garai interesgarri baten testigantzak, “betaurreko moreekin” begiratuta, esanen genuke gaur egun. Horren adibidea da lehenbiziko bi ipuinetako narratzailea, *zhenotdel* edo Komite Zentraleko Emakume Saileko langilea: emakumezko heroi-tipologia berri bat, inondik inora. Eta bere garaiari oso lotuta baldin badaude ere, aldi berean, iruditzen zait Kollontairen fokua lotzen dela gaur egun ditugun ezinegon eta kezka batzuekin hari fin baten bidez, “pertsonala politikoa da” aldarrikatzen ari baita etengabe.

Aroa Uharte  
Donostia, 2020ko abenduak 14